



# PEPI:

## “BARRENTASUNA” UNE OROTAN AZALERATUZ

Amaia OLKOTZ GOIKOETXEA

Pepi Makazaga Alberdi Errenteriarra etorritako Sanjuandarra dugu. Bere jakinmina eta barne indarrak bultzata, artearen mundua murgiltzen hasi eta egun, bete-betean dihardu. Zaletasun horren emaitzarik nabarmenetarikoa berak zuzentzen duen arte galeria dugu, Gaspar Galeria, alegia. Hau dela medio, artista gazte askori bere lanak azaltzeko aukera eskaintzen dio.

**OARSO:** *Noiz eta nola sortu zen Gaspar Galeria?*

**PEPI:** Taberna, duela hirurogei urte irekia izan zen, nire senarraren gurasoak Gabiriatik hona etorri zirenean. Ni, orain hogeitau urte hasi nintzen hemen lanean. Orain galeria dena, haseran upeltegia zen. Gero, berritu genuenean, bolatoki

bihurtu genuen. Baina sei urteren buruan bolatokia itxi egin genuen eta bi urtetan zehar horrelaxe egon zen. Nire buruan galeriaren ideia bueltaka zebilen baina senarra ez zegoen ziurregi. Azkenean, tirabira askoren ondoren, duela zortzi urte t'ardi irekitzea erabaki genuen. Oso esperientza berri zen, ez Errenterian soilik, Gipuzkoa mailan ere.

**OARSO:** *Ezagutzen al zenuen zuk galeria ireki aurretik mundu hori?*

**PEPI:** Bai, orain dela denbora dexente ezagutu nituen honen giroko tabernak Catalunyan. Izan ere, katalanak beti joan izan dira gure aurretik gai honetan. Baina dudarik gabe garrantzitsuena, Madrilgo Juana Mordeau-re galeria ezagutzea

izan zen. Juana Mordeau emakume eredutzat daukat nik. Bera frantsesa zen (frantsesa, suizarra...) eta guda aurretik estatura etorri zen idazkari gisa eta "eguzkia hartzera". Eta bertan geratu zen. Arte mugimendu guztien jakinaren gainean zegoen (garai hartan Picasso eta Kandinsky bete-betean ari ziren) eta galeria bat ireki zuen Madrilen, haseran lagun batzurekin eta gero bakarrik. Han eman dute beren burua ezagutzera gaur egungo estatuko artista garrantzitsu gehienek. Bestetik, han egiten ziren bilerek eta galeriaren inguruan zeuden pertsonak Cuencako "Museo de Arte Moderno" deritzana sorterazi zuten. Europako lehengoa izan zen eta frankismoa eta ideia itxien gainetik jartzea lortu zen. Egun, Juana Mordeau galeria enpresa da. Hildakoan, Madrilgo hiriari utzi zion dena.

*O: Nola egiten du lan galeria batek? Zer pauso eman behar dira erakusketak antolatzeko?*

*P:* Galeria bat eramateko modu asko dago. Batzu, pribatuei buruz ari naiz, enpresak bailiran antolatzen dira (aipatu dugun Juana Mordeau-rena adibidez), beste batzu bakarka, tira, modu asko dago. Hasteko, artista hautatu behar izaten da. Nik, hautatzerakoan, erizpide pertsonalak hartzen ditut kontuan: artista honen lanak, estetikak eta abarrek zer esaten didaten. Bestetik, diru arazoa ere hor dago. Normalki, saldutakoaren ehuneko kopuru bat galeriarentzat eta artistaren promozioarentzat izan ohi da. Nire galeriaren kasuan, ehuneko hogeitabosta izaten da, baina Donosti aldean hogietamabost edo berrogeia kobratzen dute. Egunez ere, artistak ordaindu egin behar izaten du (mila, mila eta bostehun pezeta). Horrela izanik, artista batek ezer saldu gabe berrogei edo berrogeitamar mila pezeta ordaindu behar izaten du erakusketa bakoitzeko. Nik, zama hori arintzearen, taberna ireki nuen eta modu horretan egunez ez diez ezer ere kobratzen.

*O: Eta zer deritzozu galerian sartzen den ikuslegoari?*

*P:* Ikuslego mailan, denetik dago. Dena den, zenbait kasutan galeriak pedagogia lana burutzen duela iruditzen zait. Jende askok, artelan baten aurrean errazena ikusten du. Ez dira murgilzen eta ez dute esanahian sakontzen. Baliteke hau informazio ezarengatik izatea. Jendea ez dago prestatuegia. Denboraren joan-etorriak agian... Jakingura eta interes piska bat besterik ez dira behar, zure "barrentasuna" eskatzen dizuna asetzeko bidea besterik ez da. Sentiberatasuna edukitzea eta beti bila ihardutea dira lanabesik erangikorrenak. Haatik, interesa daukan eta mundu honetan murgilduta dagoen ogibide liberaletako jende gazte multzo bat sortzen ari da. Hauek gainera, ikustera etortzeaz gain, erosle ere izaten dira. Dudarik gabe, egiten ditugun erakusketa guztietatik gehien erosten duen jendea Erretereriakoa izan ohi da, eta honek atseginaz betetzen nau.

*O: Nolakoa izan da arte galeria bat zuzentzearen esperientzia?*

*P:* Haseran oso gogorra izan zen, Inork ez zuen honelako gauzetan sinesten eta jendeak oso snobtzat jotzen zituen honelako ekintzak. Gauza berriek beren denbora behar izaten dute hausnartuak izateko, baina ez nuen honen luzea izango zenik uste. Haseran, ezin genuen galeria mantendu, ez bait zitzaigun jendea sartzen. Bestetik, herri honetan politika sesio dexeente izaten da eta horrek ere kalteu egin zuen galeria. Ez nuen etxe hau inolako sigla politikorekin bat egin zezaten nahi eta gogor jarri behar izan nintzen. Gauza guzti horiek min eman didate, baina hementxe nago. Hau snobismo hutsa ez dela argi geratu dela uste dut. Honetan sinetsi eta "barrentasuna" izan ez banu, galeriak ez zituzkeen zortzi urte iraungo. Nik hartu nuen bidea gogorra izan zen, zeren eta ez bait ditut itzala eta ospea daukaten artisten lanak aurkezten, ikerlanean eta arte kontenporaneoaren inguruan ari direnenak baizik. Hankasartze ugari egin dut, baina asko ikasi dut. Eta ez zait damutzen, bai bait dakit oraindik ez dudala nire egia aurkitu, horretan ari naizela ordea.

*O: Zer erizten diozu arteari ematen zaion babesa eta laguntzari? Edota ematen al zaio laguntzari?*

*P:* Artearen munduaren egoera oso gogorra da eta Euskalerriko artista guztiek argi dakite hemendik irten egin behar direla. Hori tamalgarria da. Instituzioek ezer gutxi egiten dute artea babesteko. Orain arte artistak erabili egin dituzte artearen alde zerbait egin dutela sinesterazteko. Ezer onik ere esan behar da beraien alde, eta zera aipatuko nuke arlo horretan: Artelekuren sorrera. Dena den, maila horretan zer nolako emaitza jasotzen den ikustear dago. Artelekuren inguruan adostasun eta aurkakotasunak sortu dira, baina eztabaida hori ona da, okerragoa litzateke denek "amen" esatea. Garrantzitsuena, azpiegitura sortzea dela iruditzen zait. Azaleko ekintzak burutzuz, ezin da artearen mundua jorratu. Maila honetan, oso egokia litzateke Gipuzkoan, Bilbon dagoenaren antzeko eskolaren bat eratzea. Gaur egun, eskola Bilbon besterik ez dagoenez gero, joerak hangoek ezartzen dituzte eta larregi eragiten dute. Bilbon josatzen diren artista guztiek arte moeta berbera egiten dute. Beraz, joerak aberasteko, Gipuzkoan beste eskola bat antolatu behar litzateke. Ez dakit erakundeak jabetu ote diren baina hori oso prozedura garrantzitsua da eta azterketa sakona behar du. Urtebetean mila artista sortzen baldin badira eta mila horiek artelan berdintsuak egiten baldin badituzte, gauzak aurrera oker egiten ari direla esan nahi du horrek. Lehiaketak ere garrantzitsuak dira ziztagarri gisa. Baina azken batean, lehen aipatu dudan bezala, horiek azaleko ekintzak dira eta azpiegitura tinko eta zabal batetan kokaturik ez baldin badaude indarra galtzen dute. Arlo honetan, Erretererian oso errealtate garrantzitsua daukagu, Xempelar Eskola-Tailerra, alegia.

*O: Zer egoeratan daude artea eta artistak sormen mailan?*

*P:* Mementu hauetan, gehiena geldituta ikusten dut, pintoreak bereziki. Motelak, huts samarrak ikusten ditut. Eskulturagileak berriz, "beteagoak" daudela uste dut, indartsu. Badituzte beren gorabeherak eta barne borrokak, baino argiago dakusate beraien ildoak, orain arte baztertuxeagoak egon direlako agian. Nire eritziz, une hauetan den edo ia dena eginga dago, abangoardia guztiak eginak daude. Picasso, Kandinsky eta garaieko artistek pauso itzela eman zuten eta pintura mailan beraien bideari jarraituko zaio urte askotan, ezer berririk nekez eginik. Eskultura mailan, berdintsu gertatzen zaigu. Indar-eragileak Txillida, Ibarrola, Mendiburu, Oteiza eta Basterretxea izan zirelarik. Sekulako artista eta pertsonak dira. Zerbait egosten ari dela pentsatzen dut; oraingu geldiuene hau ez da eskuarra. Artisten buruak lanean ari direla uste dut. Izango ahal gara galeriak eta bestelako bideak bultzadaxo bat emateko gai! Etiketak ahaztu eta arteak bere garaieko lekuko izan behar duela iruditzen zait, artistak berak bizi duen garaian adierazgarri. Artistei hori esaten diedanean, klasikoan aurka nagoela pentsatzen dute, eta hori ez da egia. Zera derizkiot, klasikoak izan daitezkeela, bizi duten denbora adieraziz, ordea. Hau da, bodegoi bat egin behar badute, egin dezatela express-eltze bat pintatuz eta ez duela berrehun urteko lapiko bat pintatuz.

*O: Etorkizunari dagokionez, itxaropentsu edo baikorra al zara?*

*P:* Bai, baina baikortasuna zuhurtasunez neurtuz. Giro aproposa sortzeko, denen laguntza ezinbestekoa dela pentsatzen dut. Itxaropen horrek badu hemen Erretererian izen berezirik: Justo Pascua, José Luis Ezeiza, Angel Gómez de Espinosa, Yolanda Encabo, eta María José Guenbe pinturan; Mikel Mitxelena eta Iñaki Erkizia argazkigintzan; Ion Etxebeste eskulturaintzan eta Mariano Garayar "oroegilea", arlo guztietan mugitzen dena. Bertakoak ez diren arren hemen dihardutenak ere aipatu behar: Koldobika Juaregi eta Joxe Zugasti eskulturagileak esate baterako.

Amaitzeko, Joxe Martin Apalategik Pepiri buruz esan zituen hitz hauek aipatuko ditugu: "Musa de artistas jóvenes que comienzan su andadura en la plástica".